



T-3	1. Aukeratu adierazpen egokia mintz zelularrei buruz	a	b	c	d
	<p>a- Mintz berria sortzeko fosfolipidoak dira osagai molekular garrantzitsuena</p> <p>b- Mintz plasmatikoa ez-ezik barneko mintzak ere asimetrikoak dira: bi monogeruzak, zitosolikoa eta ez-zitosolikoa, desberdinak dira</p> <p>c- Mintz-proteina periferikoak mintzaren bi aldetan egon daitezke: alde zitosolikoan eta ez-zitosolikoan</p> <p>d- Guztiak ondo daude</p>				
T-3	2. Aukeratu adierazpen egokia mintz zelularrei buruz	a	b	c	d
	<p>a- Zelulosa osagai nagusia da landare-zelulen mintz plasmolikoan</p> <p>b- Nukleoa inguratzen dituen bi mintzek osagai desberdinak dituzte</p> <p>c- Mitokondrioa mintz bakar batez inguratuta dago</p> <p>d- Prokariotoen eta eukariotoen mintz plasmatikoaren antolaketa desberdina da.</p>				
T-3	3. Mintz plasmatikoaren osagaiak dagokienez...	a	b	c	d
	<p>a- Alde estrazelularrean glikolipidoak daude ohiko fosfolipidoen ordez</p> <p>b- Kolesterola oso ugaria da: mintzen arteko fusio-prozesuak errazago egiteko</p> <p>c- Glikoproteinak ere ugariak dira eta guztiak mintz zeharreko proteinak dira</p> <p>d- Proteoglikanoak glikokalizaren osagaiak izan daitezke</p>				
T-3	4. Mintzaren fosfolipidoen ezaugarri garrantzitsu bat hau da:	a	b	c	d
	<p>a- Bi eremu molekular izatea: hidrofila eta hidrofoboa</p> <p>b- Autoagregazio gaitasuna ur-soluzioan daudenean</p> <p>c- Egitura itxiak sortzeko joera ur-soluzioan daudenean</p> <p>d- Guztiak ondo daude</p>				
T-3	5. Tenperaturak mintzaren jariatortasuna eragiten du. Jaisten bada zelulak sintetiza ditzake...	a	b	c	d
	<p>a- Kate luzeak dituzten fosfolipido gehiago, mintzen zurruntasuna areagotzeko</p> <p>b- Glikolipido gehiago, mintz plasmatikoa babesteko</p> <p>c- Kolesterol gehiago, gantz azidoen paketatze estua baimentzeko</p> <p>d- Kolesterol gehiago, mintzaren izozte-tenperatura jaisteko</p>				
T-3	6. Mintz-proteinak erraz mugitu daitezke...	a	b	c	d
	<p>a- Mintzaren monogeruza batetatik bestera</p> <p>b- Lipido geruza bikoitzaren planoan, orientazioa aldatu gabe</p> <p>c- Bakarrik lipido-baltsetan daudenak</p> <p>d- Guztiak TXARTO daude</p>				



T-3	7. Aukeratu erantzun egokia proteina garraiatzaileei buruz:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Oso ugariak dira mintz plasmaticoan baina ez dira agertzen barne konpartimentuetan b- Oso proteina handiak dira: behin baino gehiagotan zeharkatzen dute mintza c- Batzuk ATPsak dira: hauek solutu bakar bat garraia dezakete d- ATPsak ez direnak soilik garraio pasiboa baimentzen dute 				
T-3	8. Adierazi GEZURREZKOA dena ioien garraioari buruz:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Gutxitan gertatzen da lipido geruza bikoitzaren barne hidrofoboarengatik b- Garraiatzaileen zein kanalen bidez gerta daiteke c- ioien garraioaren helburu bat pHa kontrolatzea da d- Beste helburu bat oreka osmotikoa mantentzea da 				
T-3	9. Zelularen ingurunea hipertoniko bihurtzen bada, ondorioak hauek izango dira:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Ura zelulatik irtengo da difusioaren bidez b- Ura sartuko da zelularen barrura c- Zelula puztuko da d- Guztiak TXARTO daude 				
T-3	10. Mintz plasmaticoan gertatzen den garraio akoplatuari dagokionez...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Solutuaren garraioa gertatzen da Na^+-aren garraio aktiboarekin batera b- Bi solutuak "sinporte" mekanismo baten bidez garraiatzen dira; K^+ gradientearen laguntzarekin c- Garraiatzen diren bi solutuek kontrako norabidea jarraitu behar dute d- Bi solutu garraiatzen dira: bat gradientearen kontra, bestea ordea, gradientearen alde 				
T-3	11. Ondoko solutu hauetatik, zein sartuko da zelularen barrura difusio erraztuaren bidez?	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Kaltzio ioiak b- Oxido nitrikoa c- Glikoproteina bat d- Potasio ioiak 				
T-3	12. Erretikulu endoplasmaticoaren Ca^{2+} kanalak irekitzen badira emaitza hau izango da:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Ca^{2+} ioiak EEn barrura sartuko dira b- Ca^{2+}-aren kontzentrazio zitosolikoa biderkatzen da c- Ca^{2+} ioien gorakada gertatuko da Golgi aparatuen lumenean d- Guztiak TXARTO daude 				